

Ref.: CERVANTES/CATALUÑA

Udala, Mugikortasuneko Zuzendaritzaren bidez, Cervantes plazaren eta Katalunia plazaren azpian izango diren aparkalekuan tokia izan nahi dutenen eskabideak biltzen ari da, aparkaleku horiek handitu eta gero erabiltzeko moduan jartzeko egin behar diren ekintzei segida emateko.

Cervantes plazako aparkalekuko tokiak eskatzeko epea 2009ko urtarrilaren 14tik martxoaren 13ra luzatu zen.

Katalunia plazako aparkalekuko tokiak eskatzeko epea, berriz, 2008ko abenduaren 22tik 2009ko apirilaren 8ra luzatu zen.

Epe hori ez da nahikoa, ordea, Herritarren Harrera Zerbitzuak Cervantes plazako aparkalekuko eskabideentzako emandako hitzorduei erantzuteko, eta horrek Katalunia plazako eskabideei kasu egiteari ere erasaten dio. Horregatik, eskabide guztiei behar bezala kasu egingo bazaie, epeak handitu beharra dago.

Horiek horrela direla, Mugikortasun eta Garraioetako zinegotzi eskuordedunak, 2007ko ekainaren 18an Donostiako Gobernu Batzarrak emandako eskumenak erabilita,

#### **EBATZI DU:**

- 1.- Bi mila eta bederatziko martxoaren 31era arte luzatzea (31a ere sartuta) Cervantes plazako udal aparkalekuan tokia eskatzeko eskabideak egiteko epea.
- 2.- Bi mila eta bederatziko maiatzaren 7ra arte luzatzea (7a ere sartuta) Katalunia plazako udal aparkalekuan tokia eskatzeko eskabideak egiteko epea.

Donostia, 2009ko martxoaren 11.

IZPTA.: ERNESTO GASCO  
MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOAK ALORRAREN ZINEGOTZI ORDEZKARIA